

Harridura-markak




ARITZ GALARRAGA

Hitz egiten entzun didanak badaki: apal aritzeko joera daukat, baxu, entzungaitz. Bizitzan gehien egin didaten galdera izango da, segur aski, “zer?”. Edo, “barkatu, zer esan duzu?”. Ez da nahitara egiten dudana gauza bat: naturak batzuei ahots tirrinta azkarra eskaini die, hoge mila legoatara entzuteko modukoa –edo, are okerrago, jatetxeko ondoko mahaietatik, elkarrizketa osorik irentsi behar izateraino–; beste batzuek, ordea, ahots hari fin batekin konformatu behar gara, eta esandakoa maiz samar errepikatzearekin.

Horregatik, asko harritu nintzen, behin, niri egindako elkarrizketa bat –ez dizkidate asko-asko egin, erraza da aurkitzen-harridura-markaz josia aurkitu nuenean –eta nigan sobera ohikoak ez diren “kar-kar” mordo batekin–. Minimoki ezagutzen nauen inork badaki hori ezinezkoa dela, elkarrizketailearen imajinazioaren emaitza izan behar zela –gaitz erdi hitz edo esaldirik maiuskulaz jarri ez zidanean–. Nire bizitzako egun handienetan ere –seme-alabak jaio zirenean, Real Union bigarren mailara igo zenean– gehienez pare bat harridura-marka erabiliko nituela kalkulatu dut. Eta ez dut deskartatzen elkarrizketa hura txispatuta egin izana –egia esan, ez dut gogoratzen–; baina gehiegizkoa litzateke marka kopurua, halere.

Apal aritzeko joera daukat, beraz, are apalki, bizitzaren aurreko jarrera bat da. Idazten ere hala aritu nahi nuke, umil, ez dogmatiko, zalantzarik; naizen bezala, alegia. Harridura-marka izango zait, hartara, puntuazio-marken artean antipatikoena. Zutabe hauetan, luze gabe, zortzi zenbatu ditut, 223.677 karakteretatik (tarterik gabe) –pentsa, Baudelaireri eskainitako zutabe batean bakarrik zazpi zeuden–. Zarata gehiegi dago jada munduan, bazter-txoko honetatik ere oihuka aritzeko. Baten batek gerturatu nahiko balu lerro hauetara, hori bai, xumeki izango da ongi etorria. ●

OIL LUR,
OIL LUR!
ENE LUR
NEREA...!



ADUR

Osasuna

Hego Euskal Herriko ospitaleetan udan gutxienez 1.000 ohe murriztuko dituztela ohartarazi du Satse erizainen sindikatuak. Covidaren zazpigarren olatuaren erdian eta osasungintzako profesionalak “erabat gainezka, akituta eta gainzamatuta” daudenean, erabakia larria dela eta udan ere jendea gaixotzen dela adierazi du sindikatuak.

Energia

Europako Parlamentuak energia nuklearra eta gasa “berde” izendatu ditu. Parlamentuak Europako Batzordearen proposamena onartu du. Ondorioz, orain arte energia berriztagarriek soilik jaso zitzaizkien dirulaguntzak eskuratu ditzake gasaren eta energia nuklearraren industriak. EAJK aldeko boza eman du.

Garraioa

Uber enpresa estatubatuarrak mundu osoko hirietan sartzeko zein estrategia erabili zuen agerian utzi dute 2013 eta 2017 urteei dagokien filtratutako 124.000 dokumentuk. Legeak propio urratu, jendea engainatu eta gobernuen aurkako lobby-lana egin zituzten besteren artean, *The Guardian* egunkariak argitaratu duenez.